*PFEZ–2019 Genero-ikuspegiaren araberako analisia*

*IRPF–2019 Análisis desde una perspectiva de género*

Txosten honen helburua dugu aitortzailearen arabera Pertsona fisikoen gaineko errenta osatzen duten kontzeptu nagusiak eta horien bilakaera aztertzea.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga zuzena da, izaera pertsonala eta subjektiboa du, eta pertsona fisikoen errenta zergapetzen du 2014ko urtarrilaren 1etik indarrean dagoen abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauak ezarritako baldintzetan.

Zergaren egitatea zergadunak errenta sortzean edo jasotzean datza, errenta non sortu den eta ordaintzailearen bizilekua zein den kontuan hartu gabe. Hauek dira zergaren osagarriak:

- Lanaren etekinak.
- Jarduera ekonomikoen etekinak.
- Kapitalaren etekinak.
- Ondare-irabaziak eta -galerak.
- Foru Arauak ezartzen dituen errenta-egozpenak.

2019ko ekitaldian, zergaren aitortzaileek emandako informazioaren araberako datuak aztertuta, errenta-aitortzaileen −emakumeen nahiz gizonen− ezaugarriak atera ditzakegu.

Aipatutako aldagai fiskalak ez dira errenta eskuragarriaren adierazle zehatz gisa hartu behar, loturik ez dauden errentak ere baditugulako, bai eta aitortzen ez diren errenta salbuetsiak eta integratzen ez diren hainbat errenta jakin batzuen kasuak ere, besteak beste.Hala ere, errenta aztertzeko hurbilketa egitea daukagu, generoaren ikuspegitik.

Txosten honetan PFEZren osagarri nagusiak aztertu ditugu, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak eta antzekotasunak azpimarratuz.

El objetivo de este informe es el análisis de los principales conceptos que componen el impuesto sobre la renta de las personas físicas y su evolución, según el género de la persona declarante.

El impuesto sobre la renta de las personas físicas es un tributo de carácter directo y naturaleza personal y subjetiva que grava la renta de las personas físicas en los términos previstos en la Norma Foral 13/2013, de 5 de diciembre, vigente desde el 1 de enero de 2014.

Constituye el hecho imponible del impuesto la obtención de renta por el/la contribuyente, con independencia del lugar donde ésta se hubiese producido y cualquiera que sea la residencia del pagador, definiéndose sus componentes como sigue:

- Los rendimientos del trabajo.
- Los rendimientos de las actividades económicas.
- Los rendimientos del capital.
- Las ganancias y las pérdidas patrimoniales.
- Las imputaciones de renta que se establezcan por Norma Foral.

Del análisis de los datos obtenidos, según la información suministrada por las personas declarantes del impuesto en el ejercicio 2019, podemos hacer una composición del perfil de declarante tanto femenino como masculino.

Las citadas variables fiscales no deben tomarse como indicadores exactos de la renta disponible, ya que tenemos rentas no sujetas, rentas exentas que no se declaran y supuestos de no integración de ciertas rentas, entre otros. Aun así, nos permitirán una aproximación al análisis de la renta desde la perspectiva del género.

En el presente informe se han analizado los principales componentes del IRPF, subrayando las diferencias y similitudes entre mujeres y hombres.

# 1. METODOLOGIA

## 1.1. Aitortzaileen kopurua

PFEZren aitorpena aurkezteko bi modu daude.

Oro har hartuta, PFEZren zergadunek banaka ordainduko dituzte zergak, aitortzaileak jasotako errentak aitortu behar direlarik. Hala ere, familia-unitate bateko zergadunek batera ordaindu ahal dituzte zergak; horretarako beharrezkoa da zergadun guztiek zerga berdina ordaintzea eta aukera hori erabiliz ordaindu nahi izatea. Hala, familia-unitatea osatzen duten pertsona guztiek jasotako errentak aitortu beharko dira.

PFEZren ondorioetarako, honako hauek osatzen dute familia-unitatea:

- Ezkontideak edo izatezko bikoteak, betiere legez bananduta ez badaude, eta ondokoak, baldin baleude:
    - Ondorengo adingabeak, gurasoen baimenarekin modu independentean bizi direnak izan ezik, eta
    - Judizialki aitortutako desgaitasuna duten ondorengo adin nagusikoak, luzatutako edo eraberritutako guraso ahalari atxikita daudenak.
- Legezko banaketa dagoenean edo ezkontzazko edo izatezko bikote harremanik ez dagoenean eta horretarako ebazpen judiziala dagoen kasuetan, familia-unitatea gurasoetako batek eta ondorengo adingabeko guztiek osatuko dute, betiere aurretik adierazitako baldintzak betetzen badira, norekin bizi diren kontuan hartu gabe; beste aurrekoren bat baldin badago, azkenak ez du familia-unitatea osatuko.
- Alarguntasun kasuetan, ezkontide alargunak eta ondorengo adingabeek (egonez gero) osatuko dute familia-unitatea, lehenengo atalean aipatutako baldintzak betetzen baldin badira.

# 1. METODOLOGÍA

## 1.1.Número de declarantes

Existen dos formas de presentación de la declaración del IRPF.

Con carácter general, las personas contribuyentes del IRPF tributarán individualmente debiendo declararse las rentas obtenidas por la persona declarante. No obstante, las y los contribuyentes integrados en una unidad familiar podrán optar por tributar de forma conjunta, para ello será necesario que todos sus miembros sean contribuyentes por este impuesto y decidan tributar mediante dicha opción, debiendo declararse las rentas obtenidas por todas las personas que la forman.

A los efectos del IRPF la unidad familiar está constituida por:

- Las y los cónyuges, así como los miembros de las parejas de hecho, no separados legalmente, y, si los hubiere:
    - Descendientes menores, con excepción de las/los que, con el consentimiento de las personas progenitoras, vivan independiente de ellos y,
    - Descendientes mayores de edad incapacitadas/os judicialmente sujetas/os a patria potestad prorrogada o rehabilitada.
- En los casos de separación legal, o cuando no existiera vínculo matrimonial o pareja de hecho, así como en los casos de existencia de resolución judicial al efecto, será unidad familiar la formada por la persona progenitora y todas/os las/os descendientes menores excepto si se cumplen los condicionantes anteriormente citados, con independencia de con quien convivan, teniendo en cuenta que en el supuesto de existir otra/o ascendiente ésta/e no formará parte de dicha unidad familiar.
- En los casos de viudedad, constituirá unidad familiar el/la cónyuge viudo/a y si los hubiere las/los descendientes menores excepto si se cumplen los condicionantes citados en el primer guion.

Aitortzaileen kopurua kalkulatzerakoan, honako irizpide hau erabili da txostenean:

- Aitortzaileak dira zergaduna eta horren ezkontidea edo izatezko bikotea, aurkezpenean zehaztutakoaren arabera, eta aurkezpenean E edo G zehaztu ez badute "zehaztu gabe" deritzon taldean sartuko dira.

- Ez dira kontuan hartu familia-unitateko gainerako kideak (ondorengoak), ezta kenkariren bat aplikatzeko aukera ematen dutenak ere.

Hala:

- Banakako aitorpenetan, aitortzaile bakarra egongo da beti.

- Baterako aitorpenetan, hasteko, lan-errentak eta/edo jarduera ekonomikoen etekinak jasotzen dituzten beste aitortzaile egongo dira. Gainera, ezkontidea ere aitortzailetzat joko da, azken horri kapital-etekinen eta ondare-irabazien % 50 aplikatzen baitzaio .

## 1.2. Errenten banaketa

Banaka aurkeztutako aitorpenetan, ez dago arazorik errenta banatzeko; aitortzaile bakarra dagoenez gero, errenta guztia pertsona horri dagokiolako, aurretik adierazi den bezala.

Baterako aitorpenetan (lanaren errenten eta/edo jarduera ekonomikoen jasotzaile bakarra dagoenean) errenta horiek zerga jasotzailearen generoari egozten zaizkio. Guztizko likidazio-oinarriaren gainerako osagarriak % 50ean egozten dira, BGAEei eta PPei egindako ekarpenak izan ezik; halakoak dena delako aurreikuspen- planaren titularraren generoari egozten zaizkio.

Aitorpenean generoa adierazi ez bada, "zehaztu gabe" deritzon taldearen barruan sartuko da.

Kuota likidoari dagokionez, hau da, bi aitortzaileren baterako aitorpenetan ordaindutako zergari dagokionez, PFEZ zerga gehikor edo progresiboa denez, ezinezkoa da errenten banaketa kalkulatu aitortzaile bakoitzaren kuota likidoa erabiliz, bien baturak ordaindutako zergarekin edo baterako aitorpenaren guztizko kuota

A la hora de calcular el número de declarantes, el criterio utilizado en el informe ha sido el siguiente:

- Solamente se consideran como declarantes la persona declarante y su cónyuge o pareja de hecho, según lo especificado en carátula, y si no han especificado en carátula M o H se les incluye en el grupo denominado "sin especificar".

- No se tienen en cuenta al resto de miembros de la unidad familiar (descendientes), ni las personas que den opción a la aplicación de alguna deducción.

Así:

- En las declaraciones individuales, siempre habrá un/a declarante único/a.

- En las declaraciones conjuntas, en principio habrá tantos/as declarantes como perceptoras/es de rentas de trabajo y/o rendimientos de actividades económicas. Y además, se considera como declarante al cónyuge al cual se le imputa el 50 por ciento de los rendimientos del capital y de las ganancias patrimoniales.

## 1.2. Distribución de rentas

En las declaraciones presentadas de forma individual, no existe ningún problema a la hora de distribuir la renta, ya que sólo hay un/a declarante, toda la renta le corresponde a esa persona como ya se mencionó.

En el caso de declaraciones conjuntas con un/a solo/a perceptor/a de rentas de trabajo y/o de actividades económicas se imputan dichas rentas al género de la persona perceptora de las mismas. El resto de los componentes de la base liquidable total se imputa al 50 por cien, con la excepción de las aportaciones a EPSV y PP que se imputan al género del o la titular del sistema de previsión social respectivo.

Si no ha hecho constar el género en la declaración, se agrega al grupo "sin especificar".

En el caso de la Cuota líquida, es decir, el impuesto pagado en el caso de las declaraciones conjuntas de dos personas declarantes, al ser el IRPF un impuesto progresivo, resulta imposible hacer una distribución de rentas calculando una nueva cuota líquida de cada persona declarante y que la suma de ambas coincida con

likidoarekin bat egin behar duelarik.

Horregatik, kuota likidoa baterako aitorpen bakoitzean aitortzaileen generoaren arteko guztizko oinarri likidagarria banatzen den proportzio berdinean egotziko da.

Gainera, generoaren arabera aitortutako errenten ondorioetarako, guztizko likidazio-oinarri positiboa duten aitorpenak baino ez ditugu aztertuko.

el impuesto pagado o cuota líquida total de la declaración conjunta.

Por ello, se ha escogido el criterio de imputar la cuota líquida en la misma proporción en que se distribuye la base liquidable total entre el género de las personas declarantes en cada declaración conjunta.

Además, a efectos de rentas declaradas según género, sólo analizamos aquellas declaraciones que tienen base liquidable total positiva.

## 2. AITORPENAK

### 2.1. Aitorpenen kopurua eta bilakaera

2019ko ekitaldian, 572.284 aitorpen aztertu dira guztira, hau da, aurreko urtean baino % 0,47 gehiago. Hala ere, generoaren arabera aitortutako errentak aztertzeko helburuz, oinarri gisa erabiliko dugun kopurua 563.742koa izango da, hau da, guztizko likidazio-oinarri positiboa duten aitorpenak.

Krisi ekonomikoaren eraginez, PFEZren aitorpenak urteetan behera egin ondoren –izan ere, zenbateko txikiagoko errentak sortu dira, eta, beraz, ez dira nahitaez aurkeztu behar izan– 2019an, laugarren urtez jarraian, igoera txikia izan da, eta 2016an hasitako suspertze-joerak iraun du.

## 2. DECLARACIONES

### 2.1. Número de declaraciones y evolución

En el ejercicio 2019, el número total de declaraciones analizadas ha sido de 572.284, un 0,47% más que el año anterior. Sin embargo, y sólo a efectos de analizar las rentas declaradas por género, el número que nos servirá de base será de 563.742, que son aquellas declaraciones con Base liquidable total positiva.

Tras años de descensos en la presentación de las declaraciones de IRPF motivados por la situación de crisis económica, lo que ha supuesto rentas de menor importe que implican la no obligatoriedad de presentación, en 2019 se produce, por cuarto año consecutivo, un ligero ascenso, continuando con la tendencia de recuperación iniciada en 2016.

Aitorpenen kopuruaren bilakaera 2012-2019
Evolución del número de declaraciones 2012-2019

| Ekitaldia / Ejercicio | Aitorpen-kopurua / Nº de declaraciones presentadas | Bilakaera (%) / Evolución (%) |
|---|---|---|
| 2012 | 590.473 | -3,35 |
| 2013 | 578.544 | -2,02 |
| 2014 | 570.524 | -1,39 |
| 2015 | 560.600 | -1,74 |
| 2016 | 563.011 | 0,43 |
| 2017 | 565.061 | 0,36 |
| 2018 | 569.632 | 0,81 |
| 2019 | 572.284 | 0,47 |

## 2.2. Aitorpenak generoaren arabera

Aitorpen horietan guztietan, zergadunen generoa aztertzen badugu aitortzaile gisa agertzen den pertsonaren generoaren arabera, honako emaitza hauek aterako ditugu:

## 2.2. Declaraciones según género

Si analizamos el género de las personas contribuyentes en esas declaraciones según el género de la persona que figura como declarante, los resultados que obtenemos son los siguientes:

Zergadunen generoaren araberako aitorpenak
Declaraciones según género




Grafikoan ikusi daitekeenez, aitorpen guztien % 43,31n, zergapekoak emakumeak izan dira, eta gizonak, berriz, guztizko aitorpenen % 58an. PFEZren 100 ereduaren aurkezpenean ageri den laukitxoan, generorik adierazi ez duen taldea % 0,14koa izan da eta horiek “zehaztu gabe” deritzon taldean sartu dira.

Aldaketa txiki batzuk izan dituen arren, generoaren araberako aitortzaileen banaketa hori 2012ko ekitaldian zegoenaren oso antzekoa da, nahiz eta aurkeztutako aitorpenen kopuruak behera egin zuen 2015eko ekitaldira arte eta igoera txikiak izan dituen 2016tik aurrera.

Como se observa en el gráfico, el 43,31% del total de declaraciones la declarante es la mujer, mientras que el hombre aparece como declarante en el 56,55% del total. El grupo que no ha consignado su género en la casilla correspondiente de la carátula del modelo 100 de IRPF supone un 0,14 % integrado en el grupo sin especificar.

Esta distribución de los y las declarantes por género, con mínimas variaciones, se mantiene desde el ejercicio 2012 pese al descenso constante en el número de declaraciones presentadas que se produjo hasta el ejercicio 2015 y los ligeros ascensos desde 2016.

## 2.3. Zergadunen generoaren eta aitorpen-motaren araberako aitorpenak

Aitorpen guztiak kontuan hartuta, 2019ko PFEZn, banako aitorpenak % 78,25 izan ziren, eta baterakoak % 21,75.

## 2.3. Declaraciones según género y tipo de declaración

Considerando el total de las declaraciones, en IRPF 2019 el 78,25% de las declaraciones son individuales y el 21,75% conjuntas.

Aitorpenak generoaren, aitorpen-motaren eta familia-egoeraren arabera
Declaraciones según género, tipo de declaración y situación familiar




Aurreko grafikoan, aitortzaileek aukeratutako zerga-ordainketaren araberako gizon eta emakumeen banaketa ikusi daiteke. 2019ko banaketa eta aurreko ekitaldietakoa oso antzekoa da. Hala:

- Gizonetan, aitorpen-mota bakoitzaren banaketa % 29-34 artekoa da, guraso bakarreko baterako zerga-ordainketan izan ezik; azkena aukeratu dute gizon aitortzaileen % 2k, ez besterik.

- Emakumeetan, aldiz, banaketa ez da hain berdintsua, emakumeek ezkontidearekin batera zergak ordaintzeko aukera gutxiagotan erabili dutelako, eta guraso bakarreko baterako zerga ordainketaren proportzio nagusia emakumeena delako.

- Bestetik, emakume aitortzaile gehiago daude ezkontiderik gabeko banakako zerga-ordainketan, eta hori gertatzeko arrazoia izan daiteke, gizartearen ikuspegitik, emakume gehiago daudela bakarrik.

Aitorpen-motaren eta aitortzaileen generoaren arteko loturak argi uzten du aitorpen gehienak gizonek aurkezten dituztela aitortzaile gisa.

En el gráfico anterior se observa la distribución para hombres y mujeres del tipo de tributación elegida por las personas declarantes, siendo muy similar a la de ejercicios anteriores. Así:

- En los hombres, la distribución de cada tipo de declaración alcanza unos porcentajes entre el 29-36%, excepto la tributación conjunta monoparental por la que solo optan el 2,92% de los hombres declarantes.

- En el caso de las mujeres la distribución es menos uniforme por la menor opción ejercida por las mujeres como declarantes en el caso de la tributación conjunta con cónyuge, y la mayor proporción de tributación conjunta monoparental.

- Tambien son más las mujeres declarantes en tributación individual sin conyuge. y ello puede deberse a que, sociológicamente, hay más mujeres solas.

La relación entre tipo de declaración y género de la persona declarante pone de manifiesto que el mayor número de declaraciones las presentan los hombres como declarantes.

Hala, azpimarragarriena da ezkontideekin batera egindako aitorpenetan, gizonek aurkeztu dituztela aitortzaile gisa.

Así, lo más destacable, es que las declaraciones conjuntas con cónyuge, el 89,25%, las presentan los hombres como declarantes.

Gizonek aurkeztutako aitorpen guztietan, aurkezpen-mota hori guztizkoaren % 33,50 ingurukoa da; emakumeek, berriz, aitorpenen % 4 aurkeztu dituzte era horretara.

Dentro del total de declaraciones presentadas por los hombres, este tipo de presentación representa el 28,81% del total frente a tan solo el 4,38% de las presentadas por las mujeres.

Baterako eta guraso bakarreko aitorpenei (hots, seme-alaba adingabeak dituen aitortzaile bakarra dagoenean) gagozkiela, egoera bestelakoa da. Mota horretako guztizko aitorpenen % 58ren aitortzaileak emakumeak dira, eta % 42renak gizonak. Proportzio hori antzekoa da 2012tik, baina goranzko joera txiki bat igarri da gizonen kasuan.

En el caso de las declaraciones conjuntas pero monoparentales (aquellas en que sólo existe un declarante con hijos menores) la situación es distinta. En el 52,79% de las mismas la declarante es mujer frente al 47,21% de los hombres. Esta proporción se mantiene similar desde 2012, aunque con una ligera tendencia acendente en el caso de los hombres.

Generoaren ikuspegitik, gizonek aurkeztutako guztizko aitorpenen % 2 inguru guraso bakarrekoen aitorpenak dira; emakumeek, aldiz, % 4koa da aitorpen-mota horri dagokion ehunekoa.

Desde el punto de vista del género, el 2,92% del total de las presentadas por los hombres corresponden a las monoparentales, porcentaje que en el caso de las mujeres llega hasta el 4,26%.

Beraz, baterako zerga-ordainketan:

- Aitorpen gehienak guraso bik osatutako familienak dira.
- Guraso bi dituzten familiek aurkezturiko aitorpen ia guztien aitortzaileak gizonak izan dira (% 89,25).
- Guraso bakarreko familietan, emakume aitortzaileak gehiago dira (% 52,79).

Por tanto, en la tributación conjunta:

- La mayoría de las declaraciones se refieren a familias biparentales.
- Casi la totalidad de las declaraciones correspondientes a familias biparentales corresponden a los hombres como declarantes (89,25%).
- En las familias monoparentales predominan las mujeres declarantes (52,79%).

Banakako zerga-ordainketan:

- Generoaren araberako aitorpenak ehuneko ia berdinetan banatuta daude: aitorpen-mota horren % 49,34 gizonek aurkeztu dituzte, eta % 50,57 emakumeek.
- Ezkontiderik gabeko banakako zerga ordainketan, alde txiki-txikia dago emakumearen alde, eta are txikiagoa gizonen alde ezkontidearekin batera egindako banakako zerga-ordainketari dagokionez.

En la tributación individual:

- Las declaraciones por género se distribuyen en porcentajes casi idénticos: 49,34% del total de este tipo de declaraciones las presentan hombres y el 50,57% mujeres.
- Sólo hay una pequeña diferencia en el caso de la tributación individual sin cónyuge a favor de la mujer, y aún más pequeña a favor de los hombres en el caso de la tributación individual con cónyuge.

## 3. AITORTZAILEAK

Lehen azaldutako metodologiaren arabera, 2019ko PFEZn, aurkeztutako 572.284 aitorpenetan, 676.769

## 3. DECLARANTES

De acuerdo con la metodología antes expuesta, se observa que en IRPF 2019, en las 572.284 declaraciones

aitortzaile daude. Proportzioa 1,18koa da aitorpen bakoitzeko.

presentadas, existen 676.769 declarantes. La proporción es de 1,18 por declaración.

Generoaren araberako banaketa orekatuta dago; izan ere, gizonen eta emakumeen proportzioa, gutxi gorabehera, gizonezkoen % 49 eta emakumezkoen % 50ekoa da. Aldea, beraz, ehuneko puntu batetik gertu dago (0,91 puntu), emakumeen alde. Banaketa hori aurreko ekitaldietakoen antzekoa da, horietan ere puntu baten inguruko aldea baitzegoen.

La distribución por género se mantiene equilibrada ya que la proporción entre hombres y mujeres se distribuye aproximadamente entre el 49% de hombres y el 50% de mujeres. La diferencia, por tanto, es cercana a un punto porcentual a favor de las mujeres (0,91 puntos). Esta distribución es similar a la de ejercicios anteriores en los que la diferencia porcentual también era cercana a 1 punto.

Zergadunen generoaren araberako aitortzaileak
Declarantes según su género




Bizkaiko biztanleriaren erroldaren arabera, 2019an 1.152.651 biztanle zeuden lurraldean; horietatik % 51,7 emakumeak ziren eta % 48,3 gizonak.

De acuerdo con el censo de población de Bizkaia, en 2019 el número de habitantes era de 1.152.651 personas, de los cuales el 51,7% eran mujeres y el 48,3% hombres.

18 urtetik gorako biztanleriari (970.642) erreparatzen badiogu eta kopurua gure aitortzaileenarekin (676.769) alderatzen badugu, esan dezakegu biztanleriaren % 70ek aurkezten duela PFEZ, dela aitortzaile gisa, dela ezkontide gisa.

Si atendemos a la población mayor de 18 años (970.642) y lo comparamos con nuestros declarantes (676.769), podemos decir que el 70% de la población es presentador de IRPF, bien como declarante o como cónyuge.

Erlazio hori generoaren arabera aztertuz gero, ikusiko dugu emakumeen ehunekoa gizonena baino zertxobait txikiagoa dela ( % 67 eta % 72, hurrenez hurren).

Si observamos esta relación por género, vemos que el porcentaje de mujeres es algo menor que el de hombres (67% frente a 72%).

Aitortzaile kopurua Bizkaiko 18 urte baino gehiagoko biztanleei dagokienez eta generoaren arabera
Porcentaje de declarantes sobre el total de población de Bizkaia mayor de 18 años por género

| | 2019 | |
|---|---|---|
| | Gizonak / Hombres | Emakumeak / Mujeres |
| Aitortzaileak Guztira/ Total Declarantes | 334.527 | 340.705 |
| >18 Biztanleak / Población >18 | 462.579 | 508.063 |
| PFEZ % IRPF | 72% | 67% |

## 3.1 Aitortzaileen generoa eta egoera zibila

Aitortzaile gehienak ezkonduta daude, guztien % 61,07. Generoaren arabera, gizonen artean ehuneko hori zertxobait handiagoa da emakumeen artean baino (% 62,32 eta % 59,78, hurrenez hurren).

Desoreka txiki hori gizonen eta emakumeen artean sailkatu gabe daudenen multzoan eta egoera zibila adierazita ez duten aitorpenen multzoan oinarritzen da.

## 3.1 Género y estado civil de las personas declarantes

La mayoría de las personas declarantes están casadas, el 61,07% del total. Por género, en los hombres este porcentaje es ligeramente más elevado que en las mujeres (62,32% frente al 59,78%).

La razón de este pequeño desequilibrio radica en el colectivo de los que están sin clasificar entre hombres y mujeres y en el colectivo de declaraciones en la que no consta el estado civil.

Aitortzaileak zergadunaren egoera zibilaren arabera

Declarantes según su estado civil



Ezkongabeen egoera zibilari dagokionez, zergadunen % 24 inguru egoera zibil hori dute; gizonak gehiago dira (% 26,25), emakumeen aldean (% 21,96).

En el caso de estado civil soltero/a, se encuentran alrededor del 24% de contribuyentes, siendo más numerosos los hombres, con el 26,25%, frente al 21,96% de las mujeres.

Aurreikus daitekeen bezala, alargunen kasuan, emakumeak gizonak halako hiru gehiago dira. Aitortzaile guztien % 7,01 dira, eta emakumeen % 10,39 eta gizonen ia % 3,58 dira.

Como cabía esperar, en el caso de los viudos/viudas, las mujeres son casi tres veces más que los hombres. Representan un 7,01% del total de declarantes y constituyen el 10,39% de las mujeres y casi el 3,58% de los hombres.

Ehunekotan emanda, bananduak eta dibortziatuak zergadun guztien % 5,13 dira, eta horien banaketa % 50ekoa da, gizonei eta emakumeei dagokienez.

Porcentualmente, separados/as y divorciados/as suponen el 5,13% del total de contribuyentes, y se reparten al 50% entre hombres y mujeres.

Izatezko bikoteak zergadun guztien % 2,72 baino ez dira.

Las parejas de hecho solo suponen el 2,72% del total de contribuyentes.

## 3.2. Aitortzaileen generoa eta adina

## 3.2 Género y edad de las personas declarantes

Adin-tarteen arabera, PFEZ zerga aitortzen duten aurkezleen gizonen eta emakumeen arteko banaketa nahiko orekatua da.

Guztizko datuetan, aitortzaile gehienen tartea (% 37,57) 31 eta 50 urte artekoetan dago. Generoaz denaz bezainbatean, hauxe da banaketa: gizonak, % 38,53, eta emakumeak, % 36,76.

La distribución de los hombres y mujeres por tramos de edad de las personas presentadoras de IRPF es bastante equilibrada.

En los datos totales el mayor número de personas declarantes (37,57%) se encuentra en el tramo entre 31 y 50 años. Por género, se distribuyen entre el 38,53% de los hombres y el 36,76% de las mujeres.

Hala ere, 65 urteko edo gehiagoko adin-tartean, ehuneko 1,7 puntuko aldea dago emakumeen eta gizonen artean. % 28,94, % 27,25en aldean, aitorpena aurkezten duten guztizko pertsonen % 28,19 dela.

Sin embargo, en el tramo de mayor o igual a 65 años, 1,7 puntos porcentuales separan la proporción de mujeres frente a la de hombres. Un 28,94% frente a un 27,25% para un total que supone el 28,19% de las personas declarantes.

Aitortzaileak zergadunaren adinaren arabera

Declarantes según su edad




### 3.3 Aitortzaileen generoa eta desgaitasun-mota

Gizarte zerbitzuetako erakundeek aitortutako desgaitasun-mota eta graduaren arabera, ezaugarri horiek dituzten PFEZren aitortzaileak generoaren arabera sailkatu ditzakegu.

Hala, PFEZ zerga aitortu duten 62.137 pertsonak desgaitasunen bat dute; horietatik % 53,07 gizonak dira eta % 46,45 emakumeak.

Zergadun diren gizon eta emakume guztietan, % 9,86 gizonak dira eta % 8,47 emakumeak.

Desgaitasun mota ohikoena A motakoa da, hau da, % 33ko edo handik gorako gradua eta % 65 baino txikiagoko gradua duen desgaitasuna. Mota horretako desgaitasuna dute desgaitasun-egoeran dauden gizonen %52,49k eta emakumeen % 39,53k.

### 3.3 Género y tipo de discapacidad de las personas declarantes

Según el tipo y grado de discapacidad reconocido por las instituciones de servicios sociales, podemos clasificar a las personas presentadoras de IRPF que hacen constar este tipo de característica por género.

Así, 62.137 personas declarantes de IRPF presentan algún tipo de discapacidad, de las cuales el 53,07% son hombres y el 46,45% son mujeres.

Sobre el total de hombres y mujeres contribuyentes, los porcentajes son del 9,86% en los hombres y del 8,47% en el caso de las mujeres.

El tipo de discapacidad más usual es el tipo A, es decir, con grado igual o superior al 33% e inferior al 65%. En este tipo se sitúan el 52,49% de los hombres y el 39,53% de las mujeres en situación de discapacidad.

Pertsonen generoa desgaitasun-motaren arabera

Género de las personas declarantes según tipo de discapacidad




## PFEZren aitortzaileei buruzko ondorioak

Azaldutako aldagai guztiak aztertu ostean, Bizkaiko PFEZren aitortzaileei buruzko ondorio batzuk atera ditzakegu:

Generoari dagokionez, sexuen arteko banaketa nahiko orekatua da: % 50 emakumeak dira eta % 49 emakumeak.

Zergadun gehienak ezkonduta daude, guztizkoaren % 61,07, bai emakumeen kasuan, bai gizonen kasuan.

Alargunen kasuan, emakumeen kopurua gizonena baino nabarmen handiagoa da.

Adinaren arabera, aitortzaile gehienak, oro har, 31 urtetik gorakoak eta 50 urtetik beherakoak dira (gizonen % 38,5 eta emakumeen % 36,8). 65 urte edo gehiagokoen tarteko taldean daudenak aitortzaileen % 28 dira, eta emakumeen proportzioa gizonena baino ehuneko 1,7 handiagoa da.

## PFEZren aitorpenei buruzko ondorioak

Aurkeztutako aitorpenei dagokienez, egoera ez da hain orekatua; izan ere, aitorpenen % 56,6 gizonek aurkeztu dituzte, eta % 43,3 emakumeek.

## Conclusiones sobre las personas declarantes de IRPF

Tras analizar todas las variables expuestas podemos establecer unas conclusiones relativas a las personas declarantes de IRPF en Bizkaia:

Atendiendo al género, la distribución entre sexos es bastante equilibrada: 50% son mujeres y 49% son hombres.

La mayoría de las personas contribuyentes están casadas, tanto en el caso de las mujeres como en el de los hombres, 61,07% del total.

En el caso de las personas viudas el número de mujeres es sensiblemente mayor que el de hombres.

Por edad, la mayoría de las personas declarantes en general son mayores de 31 años y menores de 50 (el 38,5% de los hombres y el 36,8% de las mujeres). En el tramo de 65 años o más, se encuadran alrededor del 28% de contribuyentes, siendo la proporción de mujeres 1,7 puntos porcentuales superior a la de los hombres.

## Conclusiones sobre las declaraciones de IRPF

En el caso de las declaraciones presentadas, la situación no es tan equilibrada ya que el 56,6% las presentan como declarantes los hombres frente al 43,3% de las mujeres.

Tributazio-motaren arabera, aurkeztutako aitorpen gehienak banakako ordainketari lotzen zaizkio (guztizkoaren % 78 baino zertxobait gehiago). Tributazio-mota hori hautatu dute gizon aitortzaileen % 68k eta emakume aitortzaileen % 91k.

Baterako zerga-ordainketari gagozkiola, aitorpen gehienak guraso biko familienak dira; halakoetan, aitortzaile gisa ageri direnen % 89,25 gizonak dira eta % 10,38 baino ez emakumeak. Gainerako aitorpenetan, ez da generorik adierazi.

Guraso bakarreko familien kasuan, emakumeak ageri dira aitortzaile giza guztira aurkeztutako aitorpenen % 58n.

## 4. AITORTUTAKO ETEKINAK

### 4.1. Lan-etekin garbiak

Lan pertsonalaren diru-sarrera garbiak aitortu dituzten subjektu pasiboak 533.269 izan dira 2019an.

Generoaren araberako banaketa % 54,29koa izan da gizonetan, % 45,57koa emakumeetan eta % 0,14 jaso da *zehaztu gabe* izendatu dugun multzoan.

Gure azterketan erabili dugun guztizko aitortzaileen kopurua kontuan hartuz, % 79k lan-etekinak aitortu ditu. Datu bera generoaren arabera aztertzen badugu, genero-aldeak nabariak dira. Emakumeen % 71,3k lan-etekinak aitortu ditu, eta gizonen % 86,6k. Emaitza horren arrazoiak hauek izan daitezke:

- Ordaindutako lan merkatuan, emakume gutxiago aritzen da gizonak baino.

- Askotan emakumeek jasotzen duten soldata gizonena baino txikiagoa izan ohi da, eta ondorioz, aitortzeko betebeharrik ez duten emakume gehiago daude.

Aitortu diren lan-etekin garbiak 13.767,33 milioi eurokoak izan dira 2019an.

Lan-etekinen zenbatekoa, sexuaren arabera banatuta, hauxe da:

- Laneko diru-sarreren aitortzaileen % 55 gizonak dira eta ekitaldiko guztizko diru-sarreren % 64 eman dute.

Por tipo de tributación, la mayoría de las declaraciones presentadas lo son con tributación individual (algo más del 78% del total) por la cual optan algo más del 68% de los hombres declarantes y del 91% de las mujeres declarantes de IRPF.

En el caso de la tributación conjunta, la mayoría de las presentaciones son de familias biparentales, constando como declarantes el 89,25% de los hombres y tan solo el 10,38% de las mujeres. En el resto de las declaraciones no consta el género.

En el caso de las familias monoparentales, es la mujer la que figura como declarante en el 52,8% del total.

## 4. RENDIMIENTOS DECLARADOS

### 4.1 Rendimientos netos de trabajo

Los sujetos pasivos declarantes de ingresos netos de trabajo personal son 533.269 en el año 2019.

La distribución porcentual por género es del 54,29% de hombres, del 45,57% de mujeres y del 0,14% en el grupo que hemos denominado sin especificar.

Teniendo en cuenta el total de declarantes de nuestro análisis, casi el 79% declaró rendimientos de trabajo. Si analizamos ese mismo dato estructurado por géneros, la diferencia es evidente. El 71,3% de mujeres declara rendimientos, frente al 86,6% de los hombres. Los motivos de ese resultado se pueden deber a:

- En el mercado laboral retribuido la presencia de mujeres es menor que la de hombres.

- El salario percibido por las mujeres a menudo es más bajo que el de los hombres, consecuentemente, existe un mayor número de mujeres que no llegan a la obligación de declarar.

El total de rendimientos netos de trabajo declarados ha sido de 13.767,33 millones de euros en 2019.

La distribución por sexo del importe de los rendimientos de trabajo es la siguiente:

- El 54,29% de los declarantes de Ingresos de trabajo son hombres y aportan el 62% de los ingresos netos del ejercicio.

- Emakumeen ehunekoak, hots, % 45,57k, laneko diru-sarreren ia % 38 aitortu du.

- Azkenik, zehaztu gabeko taldea aitortzaileen % 0,14koa da, eta guztizkoaren % 0,10eko etekina aitortu du.

Aurreko ekitaldiko ehunekoen banaketa dago 2019an, baina aitortzaileen kopurua igo egin da, bai eta aldagai horren guztizko zenbatekoa ere.

- El 45,57% que representan las mujeres declaran casi el 38% de los ingresos de trabajo.

- Finalmente, el grupo sin especificar es el 0,14% de los declarantes, con un rendimiento declarado del 0,10% del total.

Se mantiene la distribución porcentual del ejercicio anterior, acompañada de un aumento tanto en el número de declarantes como en el importe total de esta variable.

Aitortzaileen guztizko kopurua
Número de declarantes




Laneko diru-sarrera garbiak
Ingresos netos de trabajo




Laneko diru-sarrera garbien batez besteko zenbatekoa (eurotan)

Importe medio de los ingresos netos de trabajo (euros)




Aitortutako lan-etekinen batez besteko zenbatekoa aztertuta, 21.442 euroko batez besteko kopurua ateratzen da emakumeentzat, eta 29.506 eurokoa gizonentzat. Beraz, zerga-arrakala 8.064 eurokoa izan

Analizando el importe medio de rendimientos de trabajo declarados, constatamos para las mujeres una cifra media de 21.442 euros, mientras que para los hombres esta cifra se eleva a 29.506 euros. Por tanto, la brecha

da.

Horrek esan nahi du emakumeek gizonek baino % 27 diru-sarrera gutxiago dituztela.

Ohartu gara gizonen eta emakumeen batez bestekoak gora egin duela 2019an, 2018ko datuekin alderatuta. Igoera hori handiagoa da emakumeetan gizonetan baino (% 5,15 eta % 2,54, hurrenez hurren). Gainera, bien arteko zerga-arrakala zertxobait murriztu da, 8.384 eurotik 8.064 eurora.

Beraz, emakumeen eta gizonen arteko soldata-arrakalari dagokionez, aurreko ekitaldian hasitako beheranzko joerak badirau. Dena dela, soldata-arrakala hori larriagotu egin da krisi-egoera dela eta; izan ere, 2016an eta 2018an beherakada txikiak izan arren, krisialdiak emakumeei eragin die bereziki.

Aztertutako etekinak aitortu dituzten pertsonen kopuru osoari dagokionez, igoera txiki bat gertatu da (% 0,84), nabarmenagoa emakumeei dagokienez (2019an, % 1,74 handiagoa, 2018aren aldean) gizonei dagokienez baino (% 0,18 gehiago).

Aitortutako guztizko diru-sarrera garbiei dagokienez, % 4,26ko igoera gertatu da bi taldeetan; igoera hori handiagoa izan da emakumeetan (% 6,97) gizonetan baino (% 2,72).

Azterketa adin-tarteka eginda, egiaztatu daiteke 31 eta 50 urte artekoen tartean daudela aitortzaile eta diru-sarrera garbi gehien ekitaldi bietan. Talde horren baitan, gizonak dira kontzeptu bietan ehuneko handiagoa dutenak.

fiscal es de 8.064 euros.

Esto significa que las mujeres declaran un 27% menos de ingresos de trabajo que los hombres.

Se puede apreciar que tanto la media de los hombres como la de las mujeres aumenta en 2019 respecto a los datos del 2018. Este ascenso es mayor en el caso de las mujeres que en el de los hombres (5,15% frente al 2,54%), además, la brecha fiscal entre ambos se ha reducido ligeramente, pasando de los 8.384 a los 8.064 euros.

Continua así la tendencia descendente iniciada en el ejercicio anterior en la brecha salarial entre mujeres y hombres. Esta brecha salarial se ha visto agravada por la situación de crisis que ha golpeado especialmente a las mujeres, y que únicamente se había frenado, con ligeros descensos en la misma, en los años 2016 y 2018.

En cuanto al número total de personas declarantes de los rendimientos analizados, se ha producido un ligero incremento (0,84%), más acusado en el caso concreto de las mujeres (un 1,74% más en 2019 respecto a 2018) que en el caso de los hombres (un 0,18% más).

En cuanto a los ingresos totales netos declarados, se produce una subida del 4,26%, produciéndose dicha subida en ambos grupos, siendo en este caso también mayor la subida en el caso de las mujeres (un 6,97%) que en el de los hombres (un 2,72%).

Si hacemos este análisis por tramos de edad, comprobamos que es el tramo de 31 a 50 años donde se encuentra el mayor número de declarantes y de ingresos netos. Dentro de ese grupo, son los hombres, en ambos conceptos, los que tienen un mayor porcentaje.

Lan-etekin garbien banaketa adinaren eta generoaren arabera

Distribución por tramos de edad y género de los rendimientos netos de trabajo

| ADIN TARTEAK / TRAMOS DE EDAD | Gizonak / Hombres | | Emakumeak / Mujeres | |
|---|---|---|---|---|
| | Kopurua Número | Zenbatekoa Importe | Kopurua Número | Zenbatekoa Importe |
| ≤ 30 | 16.118 | 341.973.724 | 15.747 | 277.323.952 |
| 31 - 50 | 112.466 | 3.318.548.203 | 102.013 | 2.235.456.172 |
| 51 - 64 | 78.026 | 2.739.451.454 | 66.310 | 1.723.902.042 |
| ≥ 65 | 82.917 | 2.142.910.905 | 58.930 | 973.738.824 |

## 4.2. Kapitalaren etekinak

Kontzeptu honen barne daude kapital higiezinen eta kapital higigarrien etekinak eta ondare-irabazi eta -galeren arteko saldo positiboa, oinarri likidagarri orokorrean eta aurrezkiko oinarri likidagarrian aitortzen direnak, hain zuzen ere.

Horren ondorioz, aitortzaile bat azpipartzial horietako batean baino gehiagotan agertu daiteke. Beraz, aitortzaile gizon eta emakumeen batura ez dator bat aitortzaile ezberdinen kopuruarekin.

2019ko PFEZri lotuta, kapitalaren errenten aitortzaileak aztertuz lortutako ondorioek adierazi digute gizon eta emakumeen arteko banaketa laneko diru-sarreretakoa baino zuzenagoa dela, emakumeen ehunekoak handiagoak baitira aitortzaile-kopuruari eta kapitalaren zenbatekoari dagokienez. Gertaera horren arrazoia izan daiteke zergaren etekin- mota horien egozpena araubidean nola araututa dagoen. Orokorrean, kontrakoa frogatu ezean, egozpena % 50ean egiten da ezkontideak direnean.

Hala, aitortzaileen % 52 inguru emakumeak dira, eta kapitalaren ia % 52 egotzi dute; % 48, gutxi gorabehera, gizonak dira eta guztizkoaren % 48 baino zertxobait gehiago aitortu dute. Gainerakoak zehaztu gabeko taldean daude (aitortzaileen % 0,18 eta % 0,04ko egozpena).

Ehunekoak aurreko ekitaldietakoen antzekoak dira, aitortzaileen kopuruak behera egin duen arren (% 4,7 gutxiago) eta zenbatekoek gora egin arren (2018an baino % 4,6 gehiago).

Ondare-irabazien egozpenari dagokionez, jaitsiera izan da, bai zenbatekoetan (% 11,3), bai aitortzaileen kopuruan (% 15,6 gutxiago), baina ehunekoek ez dute ia aldaketarik izan aitortzaileen kopuruari dagokionez, emakumeak baitira portzentajerik handiena osatzen dutenak (% 51,75), baina zenbatekoei dagokienez, azken urteetan lehen aldiz gertatu dela, emakumeak dira, ez gizonak, ehuneko handiena deklaratu dutenak (% 43,8).

## 4.2. Rendimientos del capital

Dentro de este concepto vamos a englobar los rendimientos de capital inmobiliario, de capital mobiliario y el saldo positivo entre ganancias y pérdidas patrimoniales que se declaran tanto en la base liquidable general como en la base liquidable de ahorro.

Ello conlleva que una misma persona declarante puede figurar en más de uno de estos subparciales. Por tanto, la suma de declarantes hombres o mujeres no se corresponde con declarantes distintos.

La conclusión del análisis de declarantes de rentas del capital en IRPF 2019 nos lleva a que la distribución entre hombres y mujeres es más equitativa que la de los ingresos de trabajo, llegando a ser superiores los porcentajes de las mujeres tanto en número de declarantes como en importe de capital. Esto se puede deber a como está regulada en la normativa la imputación de este tipo de rendimientos en el impuesto. Generalmente, y salvo prueba en contrario, la imputación se realiza al 50 por ciento en el caso de los cónyuges.

Así, se obtiene que alrededor del 52% de declarantes son mujeres que imputan casi el 52% del capital y aproximadamente el 48% son hombres y declaran algo más del 48% del total. El resto pertenece al grupo de sin especificar (0,18% de declarantes con un 0,04% de imputación).

Los porcentajes se mantienen similares a los de ejercicios anteriores a pesar del descenso en el número de declarantes (un 4,7% menos) y del ascenso en los importes (un 4,6% más que en 2018).

En el caso de la imputación de las ganancias patrimoniales, se ha producido un descenso tanto en los importes (11,3%), como en el número de declarantes (un 15,6% menos), pero los porcentajes apenas sufren variación en cuanto al número de declarantes, siendo las mujeres las que ocupan el mayor porcentaje (51,75%) pero, en cuanto a los importes, y por primera vez en los últimos años, son las mujeres y no los hombres los que tienen un mayor porcentaje en el importe declarado (53,92% de las mujeres frente al 46,08% de los hombres).

## 4.3. Jarduera ekonomikoen etekinak

2019ko ekitaldian, 63.498 pertsonak aitortu dituzte jarduera ekonomikoen etekinak, 2018ko ekitaldian baino

## 4.3. Rendimientos de actividades económicas

En el ejercicio 2019, 63.498 personas declaran rendimientos de actividades económicas, un 1,74%

% 1,74 gutxiagok.

Aitortzaile horietatik, % 60 baino zertxobait gehiago gizonak dira, eta % 39 baino zertxobait gehiago emakumeak.

menos que en 2018.

De estos declarantes, algo más del 60% son hombres y algo más del 39% son mujeres.

Aitortzaile kopurua eta jarduera ekonomikoen etekinak

Número de declarantes y rendimientos de actividades económicas

| 2019 | Aitortzaileen Kop. / Nº Declarantes | Zenbatekoa / Importe | Aitortzaileen % % Declarantes | Zenbatekoa % % Importe | Aitortzaile Guztira / Total Declarantes | Aitortzaileen % % Declarantes | Batez-besteko Zenbatekoa / Importe Medio |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Gizonak / Hombres | 38.414 | 692.063.558 | 60,50% | 67,88% | 334.527 | 11,48% | 18.016 |
| Emakumeak / Mujeres | 25.079 | 327.504.314 | 39,50% | 32,12% | 340.705 | 7,36% | 13.059 |
| Zehaztu gabe / Sin especificar | 5 | 43.794 | 0,01% | 0,00% | 1.537 | 0,33% | 8.759 |
| Guztira / Total | 63.498 | 1.019.611.666 | 100% | 100% | 676.769 | 9,38% | 16.057 |

Azterlanaren xede diren aitortzaileen guztizkoa kontuan hartuta, % 9,38k jarduera ekonomikoen etekinak aitortu ditu 2019an. Datuak generoaren arabera aztertuz gero, etekinak deklaratu dituzten gizonen % 11,5ek mota horretako etekinak egotzi dituzte, eta emakumeen % 7,4k.

Etekinen zenbateko osoa 1.019,61 milioikoa izan da 2019an, eta horietatik % 67,9 gizonek metatu dituzte, hau da, emakumeek lortutakoaren (% 32,1) bikoitza baino gehiago.

Aitortzaileen kopuruaren banaketa egonkorra da 2018. urtearekin alderatuta (% 1,74 jaitsi da guztira 2018. urtearen aldean); zenbatekoei dagokienez, berriz, (% 1,73 igo da aitortutako etekinen guztizko zenbatekoa 2018. urtearen aldean), eta aldaketa txikia izan du emakumeen alde.

Teniendo en cuenta el total de declarantes objeto del estudio, el 9,38% declaró rendimientos de actividades económicas. Si observamos los datos por género, el 11,5% de los hombres declarantes imputan este tipo de rendimientos, frente al 7,4% de las mujeres.

El importe total de rendimientos asciende a 1.019,61 millones en 2019, de los cuales los hombres acumulan el 67,9%, siendo más del doble del obtenido por las mujeres, el 32,1%.

Se observa que la distribución para el número de declarantes consignados permanece estable respecto a 2018 (con un descenso total respecto a 2018 del 1,74%) y en el caso de los importes consignados (con un aumento en el importe total de rendimientos declarados respecto a 2018 del 1,73%) sufren un ligero cambio a favor de las mujeres.

Jarduera ekonomikoen etekinen batez besteko zenbatekoa (eurotan)

Importe medio de rendimientos de actividades económicas (euros)



Hala ere, aitortutako enpresa- eta lanbide-jardueren etekinen batez besteko zenbatekoa aztertuz gero, emakumeei dagokienez, 13.059 euroko batez besteko zenbatekoa ateratzen da, eta gizonei dagokienez, 18.016 eurokoa. Beraz, gizonei buruzko datuek emakumeenak gainditzen dituzte, eta aldea apur bat handitu da 2018. urtearekin alderatuta: 4.955 eurotik 4.957 eurora igaro da 2019an.

Hala eta guztiz ere, ehunekotan emanda, 2018ko ekitaldian, gizonen batez bestekoa % 39,60 handiagoa zen emakumeena baino 2018an eta % 37,96 handigoa 2019an. Kopuru erlatiboetan, jaitsiera hori gertatu da gizonek aitortutako etekinen batez bestekoaren igoera % 3,14koa izan delako, eta emakumeena, berriz, %4,37koa.

## 5. GIZARTE-AURREIKUSPENEKO SISTEMETARAKO EKARPENAK

BGAE, PP eta gizarte-aurreikuspeneko gainerako sistemei ekarpenak egiten dizkieten PFEZren aitortzaileen ehunekoa % 26,11 izan da 2019an, aurreko ekitaldietakoa baino handiagoa.

Ekarleen  generoaren araberako banaketa aurreko ekitaldikoaren antzekoa da: % 53 baino zertxobait gehiago gizonak dira, ia % 47 emakumeak, eta % 1 baino gutxiago zehaztu gabeko taldean daude. 2018. urtetik atzerako ekitaldietan, ehunekoak % 57 ingurukoak ziren gizonen artean, eta % 43koak emakumeen artean.

Sin embargo, analizando el importe medio de los rendimientos de actividades empresariales y profesionales declarados, constatamos para las mujeres una cifra media de 13.059 euros, mientras que para los hombres esta cifra se eleva a 18.016 euros. Por lo tanto, los datos relativos a los hombres superan a los de las mujeres y la brecha se ha incrementado ligeramente respecto a 2018, pasando de los 4.955 euros a los 4.957 euros en 2019.

A pesar de ello, hemos pasado, en términos porcentuales, de un 39,60% más de media de los hombres respecto de las mujeres en el ejercicio 2018, a un 37,96% en 2019. Este descenso en términos relativos se ha producido porque el aumento de la media de rendimientos declarados en el caso de los hombres ha sido del 3,14%, frente al aumento del 4,37% en el caso de las mujeres.

## 5. APORTACIONES A SISTEMAS DE PREVISIÓN SOCIAL

El porcentaje de declarantes de IRPF que realizan aportaciones a EPSV, PP y demás sistemas de previsión social es del 26,11% en el año 2019, superior al de ejercicios anteriores.

La distribución porcentual por género de las/los aportantes es similar al ejercicio anterior: algo más del 53% de hombres, casi el 47% de mujeres e inferior al 1% en el grupo denominado sin especificar. En ejercicios anteriores a 2018 los porcentanjes rondaban el 57% en los hombres y el 43% en las mujeres.

Gizarte Aurreikuspen Planetara egindako ekarpenak zergadunen generoaren arabera

Aportaciones a Sistemas de Previsión Social según género del contribuyente

Aitortzaileak / Declarantes




Zenbatekoa / Importe



Aitortutako zenbatekoaren guztizkoak 345,5 milioi euro murriztu du zerga-oinarria 2019an, 2018an baino % 6,83 gehiago, eta 2016an hasitako goranzko joerari eutsi dio, hainbat urtez beheranzko joera izan ondoren, bereziki nabarmena abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauak ezarritako gizarte-aurreikuspeneko sistemetarako ekarpenen eta kontribuzioen murrizketaren mugak apaldu zirenetik.

El importe total declarado supuso una minoración de la base imponible de 345,5 millones en 2019, un 6,83% más que en 2018, continuando con la tendencia creciente iniciada en 2016 después de años de tendencia decreciente, especialmente acusada desde la disminución de los límites de reducción por aportaciones y contribuciones a sistemas de previsión social introducidos con la Norma Foral 13/2013, de 5 de diciembre.

Parte hartzaileen sexuaren arabera egindako ekarpenen ehuneko banaketa hauxe da:

- BGAE eta PPetara ekarpenak egiten dituzten aitortzaileen % 53,33 gizonak dira eta gizarte-aurreikuspeneko planetara egindako ekarpenen % 60 egin dituzte ekitaldian.
- Emakumeek, hau da, ekarleen % 46,61ek, % 42,26 egotzi du gizarte-aurreikuspeneko sistemetara egindako ekarpenetan.
- Azkenik, zehaztu gabeko taldea guztizkoaren % 0,06koa da ekarleen kopuruari dagokionez, eta % 0,07ko zenbatekoa murriztu dute.

La distribución porcentual de las aportaciones realizadas según el sexo de los partícipes es la siguiente:

- El 53,33% de declarantes con aportaciones a EPSV y PP son hombres y realizan el 57,67% de las aportaciones a planes de previsión social del ejercicio.
- El 46,61% que representan las mujeres imputan el 42,26% de las aportaciones a sistemas de previsión social.
- Finalmente, el grupo sin especificar representa el 0,06% del total en el número de aportantes y el 0,07% en el importe reducido.

Aurreko ekitaldiekin alderatuta, ehunekoen banaketa zertxobait aldatu da emakumeen alde, bai aitortzaileen kopuruari dagokionez, bai zenbatekoei dagokienez. Kopuru absolutuetan, zertxobait igo da aitortzaileen kopurua (2018an baino % 0,43 gehiago), eta igoera handiagoa izan da aldagai horren guztizko zenbatekoan (% 6,83 gehiago).

Respecto a los ejercicios anteriores, la distribución porcentual ha variado ligeramente a favor de las mujeres, tanto en número de declarantes como en los importes. En términos absolutos se ha producido un ligero ascenso en el número de declarantes (un 0,43% más que en el 2018) y un aumento mayor en el importe total de esta variable (un 6,83% más).

BGAEren eta PPren batez besteko zenbatekoa (eurotan)
Importe medio de aportaciones a Sistemas de Previsión Social (euros)



2019an, aitorpen bakoitzeko batez besteko murrizketa aztertu ostean, egiaztatu da emakumeen batez bestekoa 1.773 eurokoa izan dela, eta gizonena 2.115 eurokoa. Beraz, zerga-arrakala 342 eurokoa izan da. Horrek esan nahi du emakumeek gizonek baino % 16,16 ekarpen gutxiago egiten dizkietela BGAEei eta PPei.

Ohartu gara gizonen eta emakumeen batez bestekoak gora egin duela 2019an, 2018ko datuekin alderatuta. Igoera handiagoa izan da emakumeen kasuan gizonen kasuan baino (% 8,31 eta % 5,16, hurrenez hurren). Bien arteko zerga-arrakala murriztu egin da, 374 eurotik 342 eurora, batez besteko ekarpenari dagokionez.

En 2019, analizando la reducción media por declaración, constatamos para las mujeres una cifra de 1.773 euros, mientras que para los hombres esta cifra se eleva a 2.115 euros. Por tanto, la brecha fiscal es de 342 euros. Esto significa que las mujeres imputan un 16,16% menos de aportaciones a EPSV y PP que los hombres.

Se puede apreciar que tanto la media de los hombres como la de las mujeres aumenta en 2019 respecto a los datos del 2018. Ese ascenso es mayor en el caso de las mujeres que en el de los hombres (8,31% frente al 5,16%) disminuyendo la brecha fiscal entre ambos, pasando de los 374 a los 342 euros en términos de aportación media.

## 6. LIKIDAZIO-OINARRIA

Errentaren iturriei edo likidazio-oinarriaren osagaiei dagokienez, ondoriozta dezakegu errentaren jatorri nagusia lan-etekinak direla, bai emakumeentzat (% 86), bai gizonentzat (% 92).

Beheko grafikoan, 2019ko ekitaldiko PFEZren likidazio-oinarria osatzen duten errenta-iturriak ageri dira, sexuaren arabera banakatuta.

## 6. BASE LIQUIDABLE

Respecto a las fuentes de la renta, o componentes de la Base Liquidable, podemos concluir que el principal origen de renta son los rendimientos de trabajo tanto para mujeres (86%) como para hombres (92%).

En el siguiente gráfico figura la distribución por sexo de las diferentes fuentes de renta que componen la base liquidable del IRPF en el ejercicio 2019.

Errentaren jatorria zergadunaren generoaren arabera

Origen de renta según género del contribuyente




Orain arte aztertutako kontzeptuek zergaren oinarriaren emaitza ematen dute.

Los conceptos analizados hasta ahora nos dan como resultado la base imponible del impuesto.

Oinarri hori BGAE eta PPetara egindako ekarpenek, elikagaiengatiko urteko kuotek eta baterako zerga ordainketengatiko murrizketek murriztu egiten dute, eta azken emaitza zergaren oinarri likidagarri orokorra da.

Esta base habrá sido reducida por las Aportaciones a Sistemas de Previsión Social, las anualidades por alimentos y la reducción por tributación conjunta, para dar como resultado la base liquidable general del impuesto.

Gaur egun, PFEZ oinarri likidagarri orokorraren eta aurrezpenaren oinarri likidagarriaren batuketak eratzen du; hori guztia zergaren foru arauaren araberako kontzeptu guztien baturarengatik.

Actualmente, el IRPF se compone de la suma de la base liquidable general y la base liquidable del ahorro como suma de los distintos conceptos regulados según la normativa foral del impuesto.

Ondoko grafikoetan, zergaren aitortzaileak eta oinarri likidagarriaren zenbatekoaren banaketa agertzen dira sexuen arabera.

En los siguientes gráficos figuran las personas declarantes y la distribución del importe de la base liquidable del impuesto por sexo.

Oinarri likidagarria zergadunen generoaren arabera

Base Liquidable según género del contribuyente

Aitortzaileak / Declarantes




Zenbatekoa / Importe




2019ko guztizko oinarri likidagarri positiboa 15.385,44 milioi eurokoa izan zen. Aurreko grafikoetan, ikus dezakegu zenbateko horren % 39,41 emakumeei dagokiela eta % 60,51 gizonei; aitortzaile guztietatik, % 48,20 emakumeak dira eta % 51,63 gizonak.

La base liquidable total positiva en 2019 es de 15.385,44 millones de euros. En los gráficos anteriores vemos que el 39,41% de la misma corresponde a las mujeres y el 60,51% a los hombres y se corresponden con el 48,20% de declarantes que son mujeres, y el 51,63% que son hombres, respectivamente.

2018. urtearekin alderatuta, banaketa hori antzekoa da, baina likidazio-oinarriaren guztizko zenbatekoak % 3,85eko igoera izan du, eta oinarri positiboa duten aitortzaileen kopuruak % 0,48 egin du behera.

Respecto a 2018, esta distribución porcentual se mantiene similar, si bien el importe total de la base liquidable sufre un aumento del 3,85% y el número de los declarantes con base positiva descienden en un 0,48%.

Beraz, ehunekotan emanda, honako hau da banaketa:

- Zergaren likidazio-oinarria aitortu duten pertsonen % 48,20 emakumeak dira eta zenbateko osoaren % 39,41 egotzi dute.

Por tanto, en términos porcentuales la distribución es la siguiente:

- El 48,20% de las personas declarantes de la base liquidable del impuesto son mujeres e imputan el 39,41% del importe total.

- Zergaren likidazio-oinarria aitortu duten pertsonen % 51,63 gizonak dira eta guztizkoaren % 60,51 egotzi dute.

- Beraz, sexu bietako kopuruak antzekoak izanik, gizonek egotzitako oinarriaren zenbatekoa emakumeek egotzitakoa baino 1,54 aldiz handiagoa da.

- Un 51,63% de las personas declarantes de la base liquidable del impuesto son hombres e imputan el 60,51% del importe total de la misma.

- Por tanto, siendo muy similar el número de personas de ambos sexos, la cuantía de la base imputada por los hombres es 1,54 veces superior a la imputada por las mujeres.

Oinarri likidagarriaren batez besteko zenbatekoa (eurotan)
Importe medio de la base liquidable (euros)




Emakumeen batez besteko oinarri likidagarria, 2019an, 19.912 eurokoa izan zen, eta gizonena 28.534 eurokoa. Genero arrakala, hortaz, 8.622 eurokoa da. Horrek esan nahi du gizonek emakumeek baino % 37,52 gehiago aitortzen dutela batez besteko oinarri likidagarrian.

2018. urtearekin alderatuta, zertxobait igo dira zenbatekoak (% 2,26 gizonen kasuan eta % 6,45 emakumeen kasuan), eta sexuaren araberako batez bestekoen aldea murriztu egin da, 9.158 eurotik 8.622 eurora.

La base liquidable media de las mujeres en 2019 es de 19.912 euros y la de los hombres de 28.534 euros. La brecha de género es de 8.622 euros. Esto significa que los hombres declaran como base liquidable media un 30,22% más que las mujeres.

Respecto a 2018, suben ligeramente los importes (un 2,26% en el caso de los hombres y un 6,45% en el caso de las mujeres), reduciéndose la brecha de las medias por sexo, pasando de los 9.158 a los 8.622 euros.

## 7. KUOTA LIKIDOA

Atal honetan, Bizkaian PFEZn eta aztertutako ekitaldian sexu bakoitzeko zergadunek ordaindutako kopurua (ordaindutako zerga) jakitea ahalbidetzen duen aldagaia aztertuko dugu.

Banakako aitorpenetan, ez dago arazorik zerga nork ordaintzen duen ikusteko.

Baterako aitorpenetan, aldiz, sexuaren araberako kuota likidoa banatzeko irizpidea aitorpen bakoitzeko kuota

## 7. CUOTA LÍQUDA

En esta sección analizaremos la variable que permite conocer el importe satisfecho por las/los contribuyentes de cada sexo en IRPF en Bizkaia (Impuesto pagado) en el ejercicio analizado.

En las declaraciones individuales no hay ningún problema para ver quién paga el impuesto.

En las declaraciones conjuntas el criterio seguido para la distribución de la cuota líquida por sexo es la imputación

likido bakarraren ehunekoa egoztea izan da, aitorpen bakoitzaren sexuaren araberako oinarri likidagarriaren proportzioaren arabera. Sarreran adierazi den bezala, ezin da sexuaren araberako kuota likidoa berriz ere kalkulatu, zerga gehikorra delako, eta simulatutako banakako kuoten batura ez delako jatorrizko aitorpen bateratuan ordaindutako kuota likidoaren batura.

porcentual de la cuota líquida única por declaración en función de la proporción de la base liquidable por sexo de cada declaración. Tal como se ha dicho en la introducción, no puede recalcularse una cuota líquida por sexo porque el impuesto es progresivo y la suma de las cuotas individuales simuladas no es la suma de la cuota líquida abonada en la declaración conjunta originaria.

Adibidez, baterako aitorpen batean, oinarri likidagarriaren % 60 emakumeari edo gizonari egozten baldin bazaio, baterako aitorpenean ordaindutako kuota likidoaren % 60 sexu berari egotziko zaio.

Por ejemplo, si en una declaración conjunta el 60 por ciento de la base liquidable se imputa a la mujer o al hombre, el 60 por ciento de la cuota líquida abonada en la declaración conjunta se imputará al mismo sexo.

Ondorio horietarako, kontuan hartu behar da LPEGko eta/edo JEPAEko jasotzaile bakarra duten familiako zerga-ordainketa bateratuaren aitorpenetan, irizpide finkoz, kapital-etekinen eta ondare-irabazien % 50 egozten dela, eta horrek ondorioak dituela sexuaren araberako kuota likidoa banatzean.

A estos efectos, hay que tener en cuenta que en las declaraciones con tributación conjunta familiar con un solo perceptor/a de RNTP y/o de RAEPA, por criterio se imputa el 50% de los rendimientos de capital y ganancias de patrimonio, lo que incide en el reparto de la cuota líquida por sexo.

Kuota likidoaren % 63,54 gizonek ordaintzen dute, eta % 36,39 emakumeek.

El 63,54% de la cuota líquida es satisfecha por los hombres y el 36,39% por las mujeres.

Kuota likido positiboa duten aitortzaile kopuruaren ehuneko banaketa eta zenbatekoa

Distribución porcentual del número de declarantes con cuota líquida positiva y su importe

Aitortzaileak / Declarantes




Zenbatekoa / Importe




Gure datuak aztertuta, ikus dezakegu, 2019ko ekitaldian, kuota likido positiboa izan duten 561.143 aitortzaileetatik 305.653 gizonezkoak izan direla, hau da, % 54,47, eta 254.595 emakumezkoak, hau da, % 45,37. Azkenik, "zehaztu gabe" deritzon taldeko 895 pertsona daude, hots, % 0,16.

Del análisis de nuestros datos observamos que, en 2019, de 561.143 declarantes con cuota líquida positiva, 305.653 pertenecen al sexo masculino representando el 54,47%, y 254.595 al sexo femenino con un 45,37%. Finalmente, tenemos 895 pertenecientes al grupo sin especificar, un 0,16%.

2018. urtearekin alderatuta, zertxobait igo dira kuota

Respecto a 2018, han aumentado ligeramente las

likido positiboa duten aitortzaileak (% 0,33ko igoera), eta sexu bakoitzaren partaidetza-ehunekoak ere gora egin du (% 0,07 gehiago gizonen kasuan eta % 0,73 gehiago emakumeen kasuan). Sexuen araberako batez bestekoen aldea murriztu egin da, 2.036 eurotik 1.896 eurora.

personas declarantes con cuota líquida positiva (un 0,33% más), aumentando también los porcentajes de participación de cada sexo (un 0,07% más en el caso de los hombres y un 0,73% más en el caso de las mujeres), reduciéndose la brecha de las medias por sexo que pasa de los 2.036 a los 1.896 euros.

Gizonen eta emakumeen kuota likidoaren batez bestekoaren grafikoa
Gráfico de la media de la cuota líquida de hombres y mujeres




## Zerga-etekin buruzko ondorioak

2019ko ekitaldian, PFEZ osatzen duten kontzeptuen bitartez egindako azterketan, zenbait ondorio atera ditzakegu, eta horien emaitzek Bizkaiko aitortzaileen ezaugarrien eta sexuaren araberako desberdintasunen berri emango digute:

- Gizonek aitortutako laneko sarrera garbien batez besteko zenbatekoa 29.506 eurokoa izan da, eta emakumeek aitortutako laneko diru-sarreren batez bestekoa, aldiz, 21.442 eurokoa. Beraz, gizonek, batez beste, 8.064 euro gehiago (% 27) aitortu ohi dituzte.

- Emakumeek, batez beste, 13.059 euroko zenbatekoa aitortu dute jarduera ekonomikoen etekinen zioz, eta gizonek, aldiz, 18.016 euroko zenbatekoa aitortu dute, batez beste, kontzeptu horren zioz. Gizonen eta emakumeen arteko aldea 4.957 eurokoa da (gizonek % 37,96 gehiago aitortzen dute, batez beste, emakumeek baino). Alde hori, kopuru absolutuetan, apur bat igo da 2018ko datuekin alderatuta; orduan, bien arteko aldea 4.955 eurokoa izan zen.

## Conclusiones relativas a los rendimientos fiscales

Del análisis realizado a través de los distintos conceptos que componen el IRPF en el ejercicio 2019 podemos extraer una serie de conclusiones que nos darán como resultado una visión del/a declarante de Bizkaia y las diferencias existentes por sexo:

- El importe medio de los ingresos netos de trabajo declarados por los hombres es de 29.506 euros y la media de los ingresos declarados por las mujeres es de 21.442 euros. Por tanto, los hombres declaran una media de 8.064 euros más (27%).

- Las mujeres declaran una media de 13.059 euros como rendimiento de actividades económicas y los hombres, en cambio, declaran una media de 18.016 por el citado concepto. La diferencia entre ellos es de 4.957 euros (un 37,96% más de media de los hombres respecto a las mujeres). Esta diferencia, en términos absolutos, ha subido muy ligeramente respecto a 2018, cuando la diferencia entre ellos fue de 4.955 euros.

- Emakumeen guztizko oinarri likidagarri positiboa 19.912 eurokoa da, eta gizonena 28.534 eurokoa, hau da, 8.622 euro handiagoa (% 30,22 handiagoa). Bien arteko alde murriztu da 2018. urtearekin alderatuta, orduan, aldea 9.158 eurokoa izan baitzen (% 32,96 gehiago).

- Errentaren iturri nagusia lanaren etekin garbia da, bai emakumeentzat (% 86), bai gizonentzat (% 92).

- Orokorrean, gizonek emakumeek baino % 31,24 gehiago ordaintzen dute batez beste. Emakumeen batez besteko kuota likidoa 4.174 eurokoa izan da (2018an baino % 6,81 gehiago) eta gizonena 6.071 eurokoa (2018an baino % 2,12 gehiago).

- La Base Liquidable Total positiva media de las mujeres es de 19.912 euros y la de los hombres de 28.534 euros, es decir, 8.622 euros mayor (un 30,22% más), esto ha supuesto un descenso respecto a 2018 cuando la diferencia fue de 9.158 euros (32,96% más).

- La principal fuente de renta es el rendimiento neto de trabajo tanto para mujeres (86%) como para hombres (92%).

- En términos generales, los hombres pagan de media un 31,24% más que las mujeres. La media de Cuota Líquida para las mujeres es de 4.174 (un 6,81% más que en 2018) y la de los hombres de 6.071 (un 2,12% más que en 2018).